

## HEDATZE PROIEKTUA

- Proiektu honen **helburuak** orain arte izan dugun HAUSPOArenak dira:
  - Hezkuntzaren kalitatea eta ikasleen autonomia areagotzea.
  - Ekitatea hobetzen laguntzea, ikasle guztiek hezkuntza-arrakastaren bidean urra dezaten.
  - Bizikidetzaren positiboaren eta euskararen hobekuntza sustatzea.
- Gure bi urte hauen esperientziak erakutsi digu goizeko ordutegiak eta arratsaldeko hautazko klaseak bizikidetzari zer onura ekarri dizkion. Horregatik eta ikasle askorentzako behar duten benetako bultzakada akademikoa suposatu duelako Zuzendaritza talde hau eta uztailan sartuko dena, **HEDATZEren** alde irmo agertzen gara. HAUSPOAren jarraipen batzordean egin ditugun bilera guztietan eta familiei, zein ikasleei egin dizkiegun galdetegietan ideia hori errepikatu da.
- Gogoratuko dugu HEDATZE proiektua lortu ezean goizez eta arratsaldeko ordutegira bueltatuko ginela. Honek suposatzen duen guztiarekin: DBHko ikasle gehienak jantokian geratzea, eguerdiko tarte eta arratsaldeko klaseak.

**Zuen botoak behar ditugu!!!**